

Errege karramarroa.

Gure itsasoetako kostalde hareatsuetan, harea aleen artean ezkutaturik, begi batzuk begira ditugu.

3tik 700 metrotara arteko sakoneran, errege karramarro izenaz ezagutzen duguna aurkitzen dugu. Bere izen zientifikoa *Calappa granulata* da. Bere begi borobildu beti erneak pedunkulu okular motz eta sendoen gainean aurkitzen dira, orbita zirkular txikiekin. Antenulak zeharka kokaturik daude. Ukimen organoak dira eta kimio-hartzaileak ere badituzte.

Antenulak abanikoak bezala aldizka mugituz, organo hartzaile hauek inguruan gertatzen denaren berri ematen diete, eta horrela arriskuak saihestu ditzakete. Kolore hori arrosakara duen oskolak nahastezin bihurtzen duten pinporta gorri bereizgarriak ditu.

Behin arriskutik kanpo bere ezkutalekutik irteten da elikagai bila. Errege karramarroa dekapodo bat da, hau da, bost hanka pare ditu; lehenengo pare hain dago eraldatua, ia ezin antzeman daiteke bere benetako izaera. Hagin izugarri hauek dira lehenengo hanka pareak.

Alboka ibiltzen da. Arrisku seinalerik txikienaren aurrean, hanka eta haginak batu eta lotsaturik balego bezala gelditzen da, kutxa txiki baten antzeko itxurarekin.

Oskola oso konbexua da, eta pixka bat pikortua. Ale helduek 7 zentimetroko luzera eta 10 zentimetroko zabalera har dezakete. Haginek, sendo eta arinak, 4 hertz eta zenbait pikor dituzten gandor antzeko bat dute atzeko muturrean. Gainera, eskuineko hagineko hatz mugikorren oinean, oso bereizgarriak diren bi lobulu kamuts dituzte.

Atsedean hartzen dagoenean edo arriskuren bat sumatzen duenean, lehenengo hanka pare honekin estaltzen du ahoa.

Oraingoan, mehatxu handiarekin egin du topo, tresmail sare batekin. Batzuetan arrantza arte tradizionalaren bidez harrapatuak izaten dira. Arrantzuaren helburu nagusi izan ez arren, arrantzaleek merkatuetan saltzen dituzte itsaskia bailiran. Arrantzaleek arrantza oparoa izango den esperantzaz jasotzen dituzte sareak. Oraingoan, karramarroa izan da garaile. Itxuraz baldarra izan arren, sarritan hilgarria den tranpa honetatik irteteko gai izan da.

Urrutira, harrapakin posible bat ikusi du. Errege karramarroa haragijalea da, eta harea eremu handietan harrapatzen dituen molusku txikiak ditu bereziki gustuko. Zortea izan du, tripa-festa itzela dauka zain. Karramarroak kontu handiz hartzen du txirla, eta eraldaketa eta hagin indarrari esker, maskorra apurtzea lortzen du, eta gutiziaz gozatzea. Haginen tamaina ikusita, baldarra dela pentsa dezakegu, baina izugarri tebea da.

Errege karramarroaren aho aparatua, krustazeo gehienena bezala, bata besteari gainjarritako hiru apendiz parez osatua dago. Haginekin manipulatu du janaria eta kelipedo izeneko lehenengo apendiz parearekin jasotzen du. Hauek maxilipedoari pasatzen diote eta hemendik barailetara. Barailek birrintzen dute janaria liseritzeko prest egon arte.

Oraingoz nahikoa da, errege karramarroak, ase ostean, leku seguru bat bilatzen du. Harraparirik inguruan ez dabilela egiaztatu ondoren, bere burua lurperatzen du, baina zeruertza zainduz beti, egun berriak dakarrenari adi.